

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko apirilaren 11

✱



Iruñeko Seminarioko fatxada, Nafarroa Behereko etorbidean.

LUIS AZANZA

Bokazio eskasia, apaizen kezka

■ Eliza kezkatuta dago. Azken urteetan, gero eta apaizgai gutxiago dago gure herrialdean. Horren ondorioz larrienak, gainera, etortzeke dira Iruñeko Seminarioko kideen ustez: egun oraindik 600 apaiz ari dira lanean, baina batez besteko adina 60 urtekoa dute. «600 horietatik 40 baino ez dira 50 urtetik beherakoak». Gizonezkoen artean ezezik, emakumezkoen artean ere nabaria da azken urteetako bokazio eskasia. Halaxe azaldu digu Iruñeko

Errekoleten plazako komentuko Ama Nagusiak. «Egun bizi dugun giro sekularizatuak» du errua, besteak beste, haren ustez. Eliza eta komentuetan bezala, monasterioetan ere nabaria da deiera falta. Nafarroan, dena den, ezberdina da batzuen eta besteen egoera: Olivako eta Leireko monasterioetara jo duen lagun kopuruak gora egin du, eta Iratxekoa aldiz hutsik dago 1984. urteaz geroztik. Orreagako kolegiatan ere zazpi baino ez dira. ■

Metropoli forala

FELIPE RIUS



Inork ez ditu gonbidatzen, baina haiei bost axola; ezkontza guztietan azaltzen dira iragana eta Etorkizuna, oparirik gabe biak, eta ezkongaien ondoan aulki bana hartuta, edaten hasten dira, bata gertatutako guztia ahaztu nahi bailuen eta besteak datorrenari dion beldurra ezkutatzeko. Ez dute inoiz lortzen, ordea, eta askotan esan behar ez lituzketen gauzak aurpegiatzen dizkiete senar-emazte berriei. Duela zenbait aste izan nintzen ezkontza batean Iraganak, kopa asko edanda, hondartza batean ito zen senargai ohia gogorarazi zion emakumeari eta hau negarrez hasi zen. Denek uste zuten hunkiturik zegoela, zorionezko malkoak zirela, baina gero aitortu zidan gizon bat hurbildu zitzaizola vals bat dantzatzeko eskatuz eta baiezkoa ematera zihoala fantasmaren aurpegi bustia eta begirik gabeko zuloak ikusi zituela, uretatik atera zuten gorpua alegia. Oihukatzen saiatu zen

Ezkontza

hasieran, baina ez zitzaion deus atera, eta, amaginarrebaren harriduraz oharturik, lasaitu zenean, lurtean putzu bat besterik ez zuen ikusi. Ordurako senargaiarekin hizketan ari zen Iragana, Mexikotik amodiozko gutunak bidaltzen zizkion neska beltzaranari egindako traizioa oroitaraziz. Etorkizuna, bitartean, gainerako gonbidatuei inguratu zitzaion dibortzioen portzentaiaz eta familiaren desagerpenaz hitz eginez, baina inork ez zion kasurik egin eta denek tragotan segitu zuten. Momentu batean «gora nobioak» oihukatu zuen Etorkizunak eta irrifar maltzur bat antzeman nion. Dantzaldia bukatu baino lehentxeago elkarrekin dantzatu zuten biek eta sekulako eztabaida izan zuten: Etorkizunak esan zion Iraganari hobe zuela etxean geratzea eta ezkontza gehiagotara ez joatea, ezkonberrientzat garrantzizko gauza bakarra Etorkizuna zela, bera alegia, eta eztei bankete guz-

tietan iragana deuseztatu egiten zela. Hori entzutean parrez hasi zen Iragana; begira —esan zuen ozenki—, nahi izanez gero pikutara bidal dezaket hemen go alaitasun guztia, aski da bien belarriara zerbait esatea eta festa tragedia bilakatuko da. Nik ere —erantzun zuen Etorkizunak— eman ahal diot bukaera ospakizun eder honi ezkondu berriei laster zer gertatuko zaien esanez gero, baina ez gaitzen zoritxar-igarleak izan eta goazen trago batzuk egitera.

Zin dagit izan naizen ezkontza guztietan ikusi ditudala Iragana eta Etorkizuna, eta gainera inork baino gehiago jaten eta edaten dute, baina, dirudie-nez, ni naiz ikusten dituen bakarra —jakina, argazkietan eta bideoetan ez dira sekula azaltzen eta inoiz ez da tokirik falta—. Eroturik nagoela diote lagunek, eta horregatik ez dut gehiago hitz egin nahi honetaz, bestela ez binaute ezkontza gehiagotara gonbidatuko. X

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Bera: Sustraia eta Lou Dalfin taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 11, Puy tabernan, gaueko 22:00etatik aitzina.

Iruña: Jabier Muguruza kantari ariko da heldu den ostegunean, hilak 17, Erraldoien Txokoan, arratsaldeko 20:30etan.

Agoitz: Reincidentes, Exkisu eta DK taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, hilak 12, gaueko 24:00etan.

DANTZA

Altsasu: Pie junto a pie dantza garaikide konpainiak *Un día más* obra taularatuko du gaur, hilak 11, gaueko 22:00etatik aurrera, Zelandi kiroldegian.

ERAKUSKETAK

Barañain: Harizti Dantza taldeak hamar urte egin ditu aurten. Taldeak urteurrena ospatzeko besteak beste erakusketa zabaldu du Kultur Etxean. Bertan jantziak, argazkiak, musika tresnak eta bideo bat izanen dira ikusgai hilaren 25era arte.

Zizur Nagusia: Pedro Osesen margoak hilaren 20ra izanen dira ikusgai, Kultur Etxeko erakusketan. Astelehenetik larunbatera arratsaldeko 7:00etatik 9:00etara egoten da zabalik, eta jaiegunetan, 12:00etatik arratsaldeko 14:00ak arte.

Iruña: Kontxesi Vicente artista iruindarraren margoak hilaren 27ra arte ikusgai izanen dira Lacava kafe-erakustaretoan (Iñigo Arista, 24).

BESTELAKOAK

Barañain: Euskal dantza ikastaroa izanen da hilaren 14tik 18ra Kultur Etxean, egunero 20:00etatik 21:00etara, eta musu truk. Partehartzaileek 16 urte baino gehiago eduki behar dituzte, eta Kultur Etxean bertan lehen bailehen eman behar dute izena; izan ere, gehienez 20 pertsonak parte har dezakete ikastaroan, eta eskaerak izena eman ahala hartuko dira aintzat.

Etxauri: Harkaitzetan egindako eskalada ikastaro bi antolatu ditu Nafarroako Goi Mendi Eskolak. Ikastaroak Etxaurin egingen dituzte apirilaren 19, 20, 26 eta 27an lehena eta maiatzaren 10, 11, 17 eta 18an bigarrena. Gazteek 10.000 pezeta (400 libera) ordaindu beharko dituzte ikastaro bakoitzeko, eta helduek, berriz, 14.000 (560 libera). Izena emateko edota informazio gehiago jasotzeko deitu 42 78 35 telefonora.

Zangoza: Hegoaldeko nazioetako emakumeen egoera izeneko hitzaldia eskainiko du Begoña Zabala Mugarik Gabeko kideak gaur, hilak 11, ilunabarreko 20:00etatik aurrera, herriko Kultur Etxean.

nafar kronika

Patxi Larrion

Txapelketa

Udaberria dugu ekialdeko euskaldunen bertso aroa. *Txapelketa*, *txapelketa* da aspaldi hausnartu zuen Euskal Herriko txapeldunak. Gure kasuan, azken urteotan udaberriro egin ohi den saioaldia zerbait gehiago ere bada. Bertsozale Elkartek aski ongi daki lehiaketa dela medio zer lortzen duen. Biziraupena. Bestaldetik, *Txapelketak* elea mugarik gabekoa dela sinisteko balio izan du. Beti ere, gai horren inguruan garai bateko bertso gartsuak ditut gogoan, egun, kasu gehienetan, *ipardoinuz*, zahartze bidean diren ahotsek abestuak.


Gazteak, berriz ere, oldartu dira, oraingo honetan askoren pozerako, batzuen iduriz desegokiak ziren jarrerak uxatu baitituzte. Doana jasotzea dute hurrengo urratsa. Tarteko belau-naldietakoak lagun erraza dirudien kontua, hori ezean, hamaikagarrenez afera iturri genuke.

Gazteek molde berriak erakutsi badituzte ere, bertsoaren eremuak urri dira. Frontoi, kultur etxe, elkarte edota elizak egoki bihurtu dituzte bertsoarako. Unibertsitateetatik ere maiz igaro dira. Halere, plaza eskasia gazte hauen patua. Txapelduna izandako batek, egungo moldeak baztertu gabe, taberna zuloetara itzultzeko proposamena egin du. Gazteek plazak bilatzen ikasi beharko luke. Denboran ez aspaldi horixe genuen bertsoarako bidea. Garai bateko bertsolariak, molde zaharreko bertsolariak bazuen plazak bilatzeko dohaia. Antzina ere psikologo onak gurean.

Zaleak aldatuz joan dira, horietan ere gazteak dira eragile. Herrikoa, koadrilakoa jarraitzeko prest jende ugari hurbiltzen baita. Hurbiltasunak mugiarazten dituen hauek inoiz bertsozaleetako direlakoan, *Txapelketa* biziraupena da, Sunbilla da zita.



asteko pertsonaiak



Gabriel Urralburu
Narroako Gobernu lehendakari ohia

■ Gabriel Urralburuk Sakanako autobiako irregulartasunak ikertzen dituen batzordearen aurrean deklaratu zuen asteartean. Nafarroako gobernuburu ohia taxian iritsi zen Parlamentura, lehendakari zeneko garaletan bezain dotore jantzita, eta animoz ongi zegoela esan zien kazetari. Bere deklarazioak ordubete pasatxo iraun zuen, baina ez zuen deus berririk esan. Ez zuen erreparorik izan inoiz diru komisioak jaso izana ukatzeko, eta autobiako segurtasunean atzemandako irregulartasunez ezer ez zekiela adierazi zuen. Sakanako ikerketa batzordeak lanean segituko du datorren astean. Jose Ignacio Lopez Borderias Herrikanetako sailburu ohia eta Javier Gonzalez de Lara koronela berriro deitu dituzte deklaratzera.



Patxi Eugi
Pilotaria

■ Patxi Eugi Agoizko aurrelariak jipoi ederra jaso zuen joan den larunbatean, Labriten, Aitor Elkororen gipuzkoarraren kontra. Nafarra, iazko Manomanistako txapelduna, faborito zen final-laurdenetako lehenengo partidurako, baina Elgetakoak 22-8 irabazi zion, erraz gainera. Elkororen sasoi eta indarrak nerbioa hil eta txapela burutik kendu zion Patxi Eugiri. Agoizkoa burumakur agertu zen partidua amaitutakoan, bere buruarekin nahiko haserre. Ez zion Elkororen garaipenari meriturik kendu nahi izan, hala ere. «Hasieran asko gogortu dugu partidua. Uste nuen Aitorrek behera egingen zuela, baina neuk egin dut behera», erran zuen Eugik.

ahaztu gabe!



Pablo Sarasate orkestra

Lizarra: Pablo Sarasate orkestra kontzertu jira egiten ari da egunotan Nafarroan barrena. Atzo Tuteran izan zen, gaur Lizarran izanen da, eta bihar Tafallan. Jira honetan Agustin Bourdon bibolin bakarlaria izaten ari da, eta Jesus Maria Etxeberria zuzendaria. Orkestrak Lizarrako gaurko kontzertua San Juan elizan eskainiko du, gaueko 20:45etatik aitzina. Musikari iruindarrek honako obra hauek joko dituzte: W.A. Mozarten *Don Giovanni* operako obertura, L.V. Beethovenen *Romanza Fan*, F. Schuberten *Rondo* eta egile berberaren *1 Sinfonia*. Biharko kontzertua Tafallako Ama Birjinaren elizan izanen da, ilunabarreko 20:30etatik aitzina. Bertan Pablo Sarasate orkestrak Lizarrako kontzertuko programa bera errepikatuko du. Tafallan, berriz, programan aldaketa bat izan zen: A. Gonzalez de Aziluz musikari nafarraren *Adagio para orquesta de arcos* obra estreinatu zuten, Mozartem obertura jo ordez.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarizketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

Lizarra

COFES zentroaren zerbitzu berria

Gazteei sexuari buruzko informazioa eta laguntza eskainiko die Gazteriaren Bulegoan

Lizarrako Familia Orientabide eta Sexu Heziketarako Zentroak (COFES) eta Udaleko Gazteria Batzordeak, esperientzia berri eta pilotu bat jarriko dute abian datorren asteleheneretik aurrera. Zehazki, 23 urtetik beherakoentzako sexu orientabide eta laguntza zerbitzua jarriko dute martxan, astelehenero, Udaletxeko behean dagoen. Gazteriaren Bulegoan.

Erredakzioa / Iruñea

PROIEKTU honen bidez, COFES zentroa herriko gazteengana hurbiltzea dute helburu arduran. Orain dela hiru urte sortu zenetik, 23 urtez azpiko 350 lagun igaro dira COFESetik, gehienak emakumeak.

Agustin Otazu Lizarrako COFES zentroko hezitzaileak proiektuaren aurkezpenean azpimarratu zuenez, egun zentroan bertan martxan da gazteentzako programa berezia, astelehenero arratsaldeko 4:30ak eta 7:30ak bitartean, baina hiru urte hauetan «ez dugu finkatzea lortu». Hori dela eta, gazteentzat beste zerbitzuak eskaintzen dituen Gazteriaren Bulegora eramatea erabaki dute. COFESeko arduradunen ustez, lotsa izan daiteke gazteak zentrori ez hurbiltzeko arrazoiak, «ama edo izeba han aurkituko duten beldur baitira».

Asteleheneretik aurrera, sexuari buruzko informazioa eta laguntza jaso ahal izanen dute Lizarrako gazteek, beraz, Gazteriaren Bulegoan. Antisorgailuak, se-



Sexuari buruzko argibideak eskainiko dituzte COFES zentroko kideek.

LUIS AZANZA

xuaren bitartez transmititzen diren eritasunak, hiesa eta beste izanen dira landuko diren gaiak.

Sexu orientabidea eta laguntza jasotzeko aukera ezezik, Gizakien sexu ekintza erakusketa ikusi ahal izanen dute Lizarrako gazteek, hil honen 14a eta 17a bitartean. COFES zentroak Lizarrako Udalaren laguntzaz antolatu du erakusketa, eta Fray Diego Kultur Etxean izanen da. Institutuetako Bigarren Hezkuntzako ikasleek bisitatu ahal izanen dute, goizeko 9ak eta arratsaldeko 2ak bitartean, eta ikastetxeetatik kanpoko jendeak arratsaldeko 6:30ak eta 8:00ak bitartean iza-

nen du ikusteko aukera.

Lehen aldiz aurkeztuko dute COFES zentroek erakusketa Nafarroan. Besteak beste, sexualitateari, anatomiari, antisorgailuei eta plangintza zentroei buruzko 30 panelek osatzen dute erakusketa. Horietako bat hutsik dago, bisitariak euren iritzia idatz dezaten.

Udala COFES zentroaren alde • Hilaren 3ko udalbatzarrean Lizarrako Udalak erabaki zuenez, Nafarroako Gobernuari herriko COFES zentroko zerbitzua bere horretan uzteko eskatu dio. Egun, lau lagun ari dira bertan

lanean: ginekologo bat, erizain bat, hezitzaile bat eta administrari bat. Udalaren ustez, egungo sistema UPNren Gobernuak proposatutakoa baino hobea da. Gobernuak, hain zuzen, Emakumeentzako Osasun Laguntza Plana prestatzen ari da, eta horren arabera, COFES zentroak Emakumeentzako Laguntza Unitate bilakatuko dira.

Gobernuak proposatutako sistemaren arabera, unitate horietatik kanpo geldituko lirarteke gizonezko guztiak, eta Lizarrako COFES zentrori joaten direnen % 10, hain zuzen, gizonak dira. X

Tafalla

Kirol Hiria egiteko proiektua gaur arratsaldean aurkeztuko dute jendaurrean Udaleko arduradunek

Miguel Indurainek parte hartuko du ekitaldian, hainbat kirolari eta politikarirekin batera

Edurne Elizondo / Iruñea

TAFALLAKO Kirol Hiriaren proiektua jendaurrean aurkeztuko du gaur Udalak, arratsaldeko sei eta erdietatik aurrera, Udalak berak eta Tafallako Kirol Elkarteen Batzordeak antolatuta. Nafarroako politikaren eta kirolaren alorreko hainbat kidek parte hartuko dute gaurko ekitaldian, besteak beste Miguel Indurain Atarrabiako txirrindulari ohiak. Nafarroako Gobernuak lehendakari Miguel Sanz ere han izatea espero dute antolatzaileek. Tafallako 22 kirol elkarreetako ordezkariak, kirolariak eta Kirol Institutuko hainbat kide ere Tafallan izanen dira gaur.

Tafallako Hiri Kirol proiektuari dagokionez, zehazki, egun Tafallan den Miguel Indurain izeneko belodromoa estali egingen dute, eta barruan, hainbat instalazio berri jarriko dute, hala nola eskubalo, saskibalo eta futbito pista, patinatze pista, bi igerileku estali, pilotalekua, squash pista, bi sauna eta ostatua.

Kirol Hiriaren bigarren fase batean, eta epe luzera, belodromoren inguruan beste hainbat eraikin jartzeko asmoa dute Udaleko arduradunek. Besteak beste, igerilekuak eta futbol zelaia jarri nahi dituzte. Halaber, inguru osoa urbanizatzeko proiektua dago, aparkalekuak eta sortuz. Tafallako Kirol Hiriaren

proiektua ia egin zuen Udalak, baina ideia lehenagokoa da. Aurrekontuari dagokionez, 1.324 milioi pezeta ingurukoa izanen dela azaldu digu Javier Perez Kirol Elkarteen Batzordeko lehendakariak. Kirol Hiriaren ideien ardatza, egun Tafallan dagoen belodromoa da. Kirol Kontseilu Nagusiak bultzatuta eraiki zuten, kontseilua bera, Udala eta Nafarroako Gobernuaren artean.

Javier Perezek azpimarratu duenez, baina, «gaur egun oso gutxi erabiltzen da belodromoa, estali gabea denez ezin daitekeela nahi denean erabili. Proiektu honen bidez, errentagarritasuna eman nahi diogu, erabilerari dagokionez».

Proiektua martxan noiz jarriko den ez dago argi, nola finantzatu duten ere argitzeke baitago. Perezek erran zuenez, «Nafarroako Gobernuak 300 milioi pezeta ordaintzeko konprometua du orain», baina kontuan hartu behar da konprometzu hori hasierako aurrekontu txikiago baten arabera hartu zuela Udalak.

Miguel Sanz lehendakariak berriki auzi honen inguruan aipatu zuen, hain zuzen, proiektuaren % 50 Estatuak ordaintzea espero duela, eta beste erdia Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren artean. «Asmo guztiak zehaztu eta hitzarmena noiz sinatuko den zain gauden», azpimarratu du Javier Perezek. X

Ultzama

Apiril Kulturala ospatzen ari dira bailarako biztanleak

■ **Laukote taldeak kontzertua eskainiko du gaur**

Erredakzioa / Iruñea

AZKEN urteetan bezala, aurturten ere Apiril Kulturala ospatzen ari dira Ultzama bailarako biztanleak, Ultzamako Kirol eta Kultur Patronatuak antolatuta.

Bigarren asterako prestatutako ekitaldien artean, Laukote talde instrumentalak kontzertua eskainiko du gaur, gaueko 9etan, Larrainzarko eskolatan. Fusio taldea da eta baxuak, klarineteak, gitarrak, bateriak eta perkusioak osatzen dute.

Bihar, tailerra izanen da kamisetak pintatzen edo larrazko gauzak egiten ikasteko. Larrainzarko izanen da hori ere, eskolako arkupeetan, goizeko 11etatik arratsaldeko 2ak arte. Biharkoa jubilatuen eguna ere izanen da Ultzamaldean. Bailarako adinduek, hasteko, meza dute goizeko 12:30etan. Eta ondoren, sabala behar den bezala betetzeko, bazkaria egingen dute denek elkarrekin Ezkabarten.

Datorren ostiralean, hilak 18, izango da hurrengo ekitaldia. Gure lurreko kondaireri buruzko antzezlanak ikusi ahal izanen da Larrainzarko eskolatan, arratsaldeko 8etan. Eta hilaren 19an Ultzamako irratia aldea gaupasa egingen dute, Drindots eta Balerdi Balerdi taldeekin.

Hilaren 21arekin hasiko da aurtengo Apiril Kulturalaren laugarren astea. Egun horretan, kirolari buruzko hitzaldia eskainiko dute eta hainbat futbolari, pilotari eta txirrindularik parte hartuko dute. Arratsaldeko 8etan izanen da, Gerendiango Aitona jate-txan.

Hilaren 21etik 27ra bitartean, halaber, Mugarik Gabe taldearen erakusketa izanen da, Emakumeak munduaren eragileak izeneko, alegia, Larrainzarko eskolatan izanen da ikusgai.

Hilaren 27an bertan, eskulangileen erakusketa eta aizkolariaren erakusketa izanen dira, herri bereko pilotalekuan, goizeko 10etan hasi eta arratsaldeko 2ak bitartean.

Maiatzean amaituko dira aurtengo Apiril Kulturalako ekitaldiak. Hilaren lehenengoan, hain zuzen, Belateko Ama Birjinen eguna ospatuko dute. Ohi bezala, prozesioa egingen dute, Ainhoako dantzarien eta abesbatzen laguntzarekin.

Apiril Kulturalako ekitaldiak bukatzeko, maiatzaren 3an, beste gaupasa bat egingen dute Ultzamako bailaran, Zurrupen txarangaren alde, hain zuzen ere. X

Gero eta apaizgai
gutxiago Nafarroan

Gero eta gutxiago

Nafarroan orotara 600 apaiz ari dira gaur egun lanean, baina batez besteko adina 60 urtekoa dute

Eliza kezkatuta dago. Azken urteetan bokazio eskasia hagitz nabaria da gure herrialdean, eta urtetik urtera apaiz gutxiago ordenatzen da. Azken urteetan areagotu den fenomeno badea ere, bokazio faltaren ondorio larrienak hamar edo hamabost urte barru pairatuko direla uste dute Iruñeko Seminarioko kideek. Izan ere, gaur egun 600 apaiz badaude ere, batz besteko adina 60 urtekoa dute. Horietako 40 baino ez dira 50 urtetik beherakoak.

Edurne Elizondo / Iruñea

EUSKAL HERRIKO apaizak komunikabideetako protagonista izan dira berriki, horietako 507k euskal elizbarrutiaren aldeko idatzia aurkeztu zutelako. Bestalde, asteazkenean hasi eta gaur arte, XVIII. Teologia Sinposiuma egiten ari dira Nafarroako Unibertsitatean, Teologia fakultateak antolatuta. Nafarroan, baina, krisian omen da erlijioa, eta krisian, neurri batean, Eliza bera, bokazio eskasia piztu baitu azken urteetan herrialdeko apaizen kezka. Joan den martxoaren 19an, San Jose egunarekin batera, Seminarioaren Eguna egin zen, eta ospakizun hori zela-eta Apaizgaitegiak azpimarratu zuen kristau komunitateari apaiz bokazioak sortzeko premiaz ohartarazi behar zaiola.

Seminarioaren Egunerako prestatutako txostena eskuan zuela hartu gintuen Iruñeko Apaizgaitegian Francisco Javier Ahechu uhartearrak. Bokaziozko Pastoreko ordezkaria da bera, eta esaten duenez, «bokazio eskasia fenomeno argia da. Denek dute gogoan Iruñeko apaizgaitegi handia, eta orain, 23 kide baino ez dago bertan».

Urtetik urtera gazte gutxiago apaiztea, Ahechuren ustez, arazoaren alderdi nabaria baino ez da. «Ezin dugu ahanzi atzetik faktore asko dagoela. Kontuan hartu behar dugu nolako egoeran bizi garen. Kristautasunari dagokionez, gaurko unea zailagoa da, hainbat faktore sozial direla medio egungo familia eta gazteen heziketa kristaua ez baitira beste garai batekoak».

Beste garai horietan, hain zuzen, Narroakoa bokazio anitzeko elizbarrutia izan dela gogoratu digu Francisco Javier Ahechuk. Eta egun oraindik, gure herrialdean lanean ari diren 600 apaiz inguru badaudela azpimarratu du. Apaiz horien batez besteko adina, ordea, 60 urtekoa da erran ditugunez, eta 600 apaiz horietatik



Errekoleten plazako komentuan bezala, Seminarioan ere nabaritu dute bokazio falta. Argazkian, Miguel Larranbehere eta Francisco Javier Ahechu. LUIS AZANZA



Francisco Javier Ahechu: «600 apaizetatik 40 baino ez gara 50 urtetik beherakoak Nafarroan»

Miguel Larranbehere: «Etorkizunari begira, pazientzia izan behar dugu, ongi prestatu eta lan asko egin»

40 bakarrik dira 50 urtetik beherakoak. «Hori da benetako arazoa, horrek erran nahi baitu hemendik hamar edo hamabost urtera hagitz apaiz gutxi izanen dela Nafarroan».

Gaur egun Iruñeko Apaizgaitegia 23 kide osatzen badute ere (horietako hiru diakono dira), 1996-1997 ikasturtean bi lagun berri baino ez da sartu. Apaizgaiok bi talde nagusitan daude banatuta: hamabi teologia komunitatean, eta zortzi filosofia-koan. Beste bi eta diakono bat parrokian daude etapa pastorealean. Iaz, halaber, hiru iruindar eta allotar bat apaiztu ziren, ekainaren 30ean, Iruñeko katedralean, eta abenduan hiru diakono ordenatu zituzten. Beste bi joan den martxoan.

Apaiz gutxi hamar urte barru

Urtero, beraz, batez beste hiru edo lau apaizgai baino ez da ordenatzen, «baina aldi berean urtean 20 edo 30 apaiz inguru gaitzen ditugunez, hainbat arrazoi-rengatik, hamar urteren buruan hutsune garrantzitsua nabaritutako dugu, inolako zalantzarik gabe», nabarmendu du Bokazio Pastoreko ordezkariak.

60ko hamarkada inguruan, mila apaizgai zuen elizbarrutia zen gure herrialdekoa. Hamarkada haren bukaeran, hala ere,

kopurua izugarri jaitsi zen, Seminarioa ere behera etorri baitzen. 1978. urtean, Jose Maria Zirardarekin batera, «berpiztea etorri zen», Ahechuk azaldu duenez, «eta Seminario berriaren ibilbidea hasi zen orduan». Azken sei-zazpi urteetan, ordea, «egoera geldituta dago. Batez beste, 25 apaizgai ditugu urtero».

Bokazio eskasiaren ondorioak hemendik urte batzuetara nabaritutako badira ere gehien, lehenengo hutsuneak agertzen hasiak dira. Adibidez, apaiz bakar batek gero eta herri gehiagotako parrokien ardura du bere gain. «Herri txikietan hasi dira bokazio eskasiaren ondorioak pairatzen. Eta datozen urteetan ere beste hainbat parrokia berregituratu beharko dugu. Elizak berak go-goeta sakona egin beharko du bere etorkizunari buruz». Francisco Javier Ahechuren ustez, gainera, laikoek ere partehartze zuzena izan beharko dute 10-15 urte barruko egoera berrian: «Elizaren funtzionamenduan, bere izate osoan murgildu beharko dute».

10-15 urte barru lanean izanen den apaizetako bat, hain zuzen, Miguel Larranbehere iruindar euskalduna izanen da. 27 urte ditu eta iazko irailean sartu zen Iruñeko Apaizgaitegian. Geografia eta Historia ikasketak eginak

Gero eta apaizgai
gutxiago Nafarroan

Monasterioak, hutsik edo beteta

■ Herrialdeko ezagunenek modu ezberdinean sumatu dute bokazio eskasiaren eragina

E.E. / Iruñea

ELIZAK bokazio eskasia gaur egun fenomeno orokorra dela onartzen badu ere, Nafarroako hainbat monasteriotan egoera ezberdina dela azpimarratu behar da. Gure herrialdean oso ezagunak diren Leire, Oliva, Iratxe eta Irantzuko monasterioetan eta Orreagako kolegiatan, adibidez, era oso ezberdinetan erantzun diote bokazio eskasiaren eraginari buruzko galderari.


Olivako eta Leireko mojeek argi eta garbi azaldu digute beren ikuspegia: «Guk ez dugu inolaz ere nabaritu; alderantziz, gero eta gazte gehiagok jotzen du gure atea, gure ordenan sartzeko asmoz». Zarrakazteluko Olivako monasterioa 1134. urtetik dago zutik, eta bertan, 30 fraide zistertar inguru bizi da gaur egun. Denetara 50 inguruk osatzen dute komunitatea, Markinan (Bizkaia) eta Kordoban (Andaluzia) ere beste hainbat baitaude.

Zistertarren nobiziatua Olivako monasterioan bertan dago, eta egun lau lagun badira. «Beste sei botoak egin berriak dituzte», gaineratu du Olivako aita Eduardok. «Orokorrean, bokazio eskasiaz mintzatzen dira, baina hemen ez da gertatu; urtero kide berriak datozkigu, azken urteetan batez ere».

Esako Leireko monasterioan antzera gertatzen dela erran daiteke. Halaxe azaldu digu bertako moje batek. Monasterioan 32 fraide bizi da gaur egun; horietako hiru postulanteak dira, eta beste bi nobiziatuan daude. «Guretzat aski da urtean bakar batek botoak egitea bizitza osoan arazorik ez izateko. Eta 54. urtean hemen monasterioko bidea berrezarri zenetik, ez dugu inolako arazorik izan, gero eta kide gehiago hurbiltzen da guregana». Leireko mojeen ustez, hain zuzen, bokazio eskasia kontenplaziozko bizitzan ez baliz bizitza aktiboan eta apaiztegiaren gertatzen da.

Abartzuko Irantzuko monasterioko komunitatea askoz kide gutxiagok osatzen dute, lauk hain zuzen. Ez dira fraideak, gainera, elkarrekin bizi diren apaizak baizik. Irantzukoa XII. mendeko monasterio zistertarra da. Mojeek 1839. urtean alde egin zuten handik, Mendizabalen desamortizazioarekin batera. 104 urtez hutsik egon da, apaizok bertara aliegatu ziren arte. Monasterioa apaizgaitegi txiki eta nobiziatua izan zen garai batean, 1982. urtera arte. Egun, inguruko herrietako parrokiaren ardurak dute beren esku Irantzuko monasterioko apaizek.

«Bokazio eskasiak denongan du eragina», erran digu aita Jesusok, «eta arrazoiak ugari dira. Seme-alaba bakarra edo bi dituzte egungo familiek eta lehen askoz handiagoak ziren, erlijio-tasun handiagoa zegoen, eta



Orreagako kolegiatan zazpi lagun baino ez da bizi gaur egun.

ARTXIBOKOA

gaur egun hori guztia galdu egin da». Aita Jesusen ustez, 70eko hamarkadarekin batera hasi zen deiera falta nabaritzen, «eta orain badirudi berriro apur bat gora egin duela. Edo gaur egun apaizgaitegiaren sartzen diren bokazioa, behintzat, indartsuagoa da. Monasterio honetan, dena den, beti izan gara gutxi».

Iratxeko monasterioko eta Orreagako kolegiatako egoera ez da aurrekoena bezalakoa. Alegiko Iratxeko monasterioari dagokionez, ez asko ez gutxi, fraide bakar bat ere ez da bizi bertan 1984. urteaz geroztik. Emilio Ziordia Nafarroako Gobernuak langilea mintzatu da gurekin, bera baita monasterioko biztanle bakarra. Etxea bisitariei erakutsi eta ahal duen neurrian zaindu egiten du egun (monasterioan, dena den, ezin daiteke bizi orain), fraideak bertan zirenean baratzetan, sukaldean, edonon lan egiten zuen bezala. 33 urte luze

darama bertan eta monasterioko fraide eskolapioen eskutik hezi da.

«Bokazio faltak hustu du Iratxeko monasterioa», azpimarratu du Emilio Ziordia 47 urteko alegitarra. «Garai batean eliz probintzia guztietako gazteak biltzen zituen apaiztegi nagusia izan zen, eta gaur ez dago inor. Orain 25 urte hona aliegatu nintzenen, berrehundik gora ziren denera, eta orain ezta bakar bat ere».

Emilio Ziordiak ongi ezagutzen du monasterioko bizitza, eta bere ustez, Iratxekoa bezalakoa monasterio eta etxe handiek, gaur egun, ez dute zentzu handirik. «Zaharkituta gelditu dira. Moje gazteek ez dute halakoetan bizi nahi. Gizartea, errealtatea aldatu da eta Elizak ere horri aurre egin behar dio. Gaur egun hutsik baitira elizak, ez baitago erlijio izpiriturik».

1127. urtean eraiki zen Orreagako kolegiata ere apaiz kalonje

gutxi batzuen esku dago gaur egun. Bertako liburuzain Emilio Lintzoainekin mintzatu gara Orreagan bizi duten egoerari buruz. «Berez, orain dela hamabi urtera arte bezala, hamaika izan behar genuen, baina zazpi baino ez gaude hemen, denak zaharrak. Batzuk hil eta besteek alde egin dute. Eta hona ez da inor ailegatzeko, ez baitago inolako bokaziorik», erran digu Lintzoainek, Orreagako kolegiatan hamabi urte eta erdi daraman Eugiko apaizak.

«Hau ez da hiria, Iruñetik ez dago oso hurbil, neguan hotza eta elurra dugu. Eta gaur egungo apezek nahiago dute hiria hau baino. Ondorioz, herri txiki askotako elizak gelditzen dira kolokan», gaineratu du Lintzoainek. Bokazio eskasia, bere ustez, aspalditik datorren arazoa da. «70ean apaiztegia hustu zenetik, oso gazte gutxi egiten da apaiz urtean». X

ditu Nafarroako Unibertsitatean, baina bere bidea, erlijioaren bidetik, Seminarioan aurkitu du. «Ikasten duzu, lagunak badituzu, familia bat osatzea pentsatzen duzu, baina konturatzen zara zer-bait falta zaizula. Egun batean, azkenean, galdera sortzen da: non dago nire lekua?».

Miguelen erabakiak harrituta sortu zuen hasieran familia eta lagunaren artean, baina azkenean denek onartu zuten. Iruñeko Seminarioan pozik da, nahiz eta onartu datozen urteei aurre egiteko pazientzia behar dela. «Baina giro ederra dugu gure artean. Filosofiko taldean nago, eta bertan, gazteenak 19 urte ditu eta zaharrenak ia 40. Bakoi-tza herri batekoa da eta esperientzia ezberdinak bizi ditugu». Bokazio eskasia ere euren arteko solasaldietako gaia izan da askotan: «Pazientzia izan behar dugu, ongi pres-tatu eta lan asko egin».

Emakumezkoen artean ere, bokazio falta

• Gizonezkoen artean ezezik, emakumezkoen artean ere eragina izan du «egungo gizartean bizi den erlijiozotasu»-nik gabeko giroak. Hala uste du Iruñeko Errekoleten plazako Agustina Errekoleten komentuko Ama Nagusiak. Iruñeko plaza ezaguneko komentua klausurakoa da, eta Ama Nagusiak ez ditu gogoko kazetariak. Leihotxi bateko barren artean, dena den, gurekin hitz egin du azkenik.

Errekoleten plazako komentua XVII. mendearen hasieran egin zuten. 24. urtean eraikitzen hasi, eta hamar urte beranduago aliegatu ziren bertara lehen mojak. Gaur egun, hamalau bizi dira bertan, eta otolitzari, kontenplazioari eta lanari eskaintzen dizkiote eguneko orduak. Komentua mantentzeko egiten dute lan Agustina Errekoleta hauek, elektronikaren alorrean. «Tinbreak, atezain automatikoak eta beste egiten ditugu».

Agustina Errekoleten Ama Nagusiarekin, baina, bokazio eskasiari buruz mintzatu gara. «Eskasia denek bezala nabaritu dugu, azken hamabi urteetan batez ere. Jaitsiera nabaria izan da». Agustina Errekoleten ordenako mojek, hain zuzen, 30 komentu dituzte Espainia osoan, eta egun, Leongo nobiziatuan hamasei neska baino ez dago. «Jalotze tasak, batetik, behera egin du, eta nahiz eta horren eragina oraindik ez sumatu, datozen urteetan nabaritutako dugu. Bestetik, giroa erabat sekularizatu egin da. Hori da arazoa. Denetarik dugu, eta ja ez dugu Jainkoaren beharrik», dio Ama Nagusiak.

Bokazio eskasiak kezka pizten diola onartzen badu ere, kezka horrek ez duela itotzen azpimarratu digu, ordea.

Xanti Begiristain

Koldarkeria

■ Oraingo honetan PSNk eta UPNk berriz ere azaldu dute gorputz barruan daukaten izua. Zertaz ari naizen ordea, ba, Elkarri gizarte mugimenduak Ezker Batuaren bidez, Nafarroako Parlamentuan egin duen proposamenari buruz.

Jakina da Elkarrik proposamen bat egin duela Parlamentuan, Nafarroako Gobernuak egin dezan herri kontsulta bat nafar gizartearen urte honetan bertan. Proposamena funtsean honako hau da: «Ea jendea bat datorren, Nafarroako Gobernuak EAEkoarekin egiten lukeen hitzarmen batekin, harreman iraunkorra lortzeko, baina beti Nafarroak autonomia errespetatuko lukeen».

Benoa, saiakera honetan ere, UPNk, PSNren lagutzarekin atzera bota du proposamenaren azalpenak eta arrazoiak entzuteko aukera berri hau.

baino presa askoz ere handiagoa dutela. Dena den, afera honek behar gutxiago izanen balu ere, zer dela eta entzun ere ez dute egin nahi? Aditu ondoren, utzi ahal zuten geroko ere baina argi dago entzute hutsak, nonbait, ikara ematen diela.

Gorago kontatu dudak bezalaxe, UPNrentzat ez omen dago inolako arazo eta gatazka konpondu beharrik, horrexegatik ez dute deus ere egiteko premiarik sentitzen, baina hau guztia oso sinesgaitza gertatzen zaigu ikusten ditugunean, esate baterako, asteburuero gertatzen direla kale borrokaren ondorioak, Nafarroako gizartearen zati handi batek nahi duela autodeterminazioa, ETBk eta Euskalerrria Irratiaren auziek konpondu gabe jarraitzen dutela nahiz eta denbora aurrera doan etengabe; eta beste makina bat arazo gehiago ere aipa liteke, baina batez ere, Miguel Sanzek bere ahoa listuz be-



UPNk esan du hemen, Nafarroan, ez dagoela auzi politikorik, alegia, dena konponduta dagoela Nafarroako Foru Hobekuntza egin zenez geroztik, eta PSNren aburuz ba omen daude beste arazo ugari honek baino askoz ere premia handiagoa dutenak.

Denok gogoratzen dugu Miguel Sanzen gobernuak nola berehalaxe bota zuen atzera Lankidetzaren Hitzarmenaren izapidea bere garaian. Orain, esan bezala, gauza bera egin du Elkarriren azken proposamenarekin, PSNren laguntzari esker.

Eta hona hemen hainbat eta hainbat gauza bitxi. PSNk ezezkua eman baino hiru egun lehenago Elkarrikoei esan omen zien balezkua emanen zuela. Gero, ordea, iritzi aldaketa misteriozua izan zuten antza, alderdi barruan. Halaber, esan zuten, beste arazo ugari horrek

tetzen duenean esanez Nafarroako auziak eta gatazkek nafarrek erabaki behar dituztela, eta beste inork ez.

Hona hemen ba, primerako aukera horixe bera praktikan jartzeko. Gainera, gauza bat jakin beharra dago: Elkarrik Nafarroan iritzi-azterketa bat egin du, eta bertako alderdi politikoko guztien oinarriko jendearen erdia baino gehiago, herri kontsulta egitearen alde azaldu da. Baita PSN eta UPNkoak ere.

Esan bezala, PSN eta UPNko gobernariek ez dute errealtatea ikusi nahi. Nahiago dute burua hegala azpian sartu eta itsuarena egin.

Baina noizbait onartu beharko dute ez dagoela gauza demokratikoagorik herriari ahotsea ematea baino.

Eta dena den, Elkarrik bere lanean jarraituko du. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Bustintze eta
Sarasate emakume
nafarren lanak

■ Mikel Belasko toponimia ikerlari ospetsuak aspaldidanik argitu zigun afera, eta egun, jakin badakigu Olite ez dela Hiriberri, hau da, erdarazko Villanueva, baizik eta Herriberri, hots, erdarazko Extremadura. Alabaina Extremadura nolatan den argitzeko ez digu berri haundirik utzi. Sobera-latz ote? Ez dut uste, goxo eta samur entzutekoak baitira. Halen etxean ez dago dirurik, gurean ezta ere, halaz guziz, bai ihardokitzeko aitzaki beste, interesgarri bezain asegarrri, asegarrri bezain aspergarri, aspergarri bezain gure, gure bezain ezezagun. Tamalez ordea, Herriberriko eremu emankorretan logale pausatzen den Olitetik ez hagitx urrutian, Txutxoaren gerizapeko herrian hain zuzen, sortu zitzaizun Kapitolina Bustintze Larrondo 1865.eko urriaren 27an. Uxuetar honi buruz ezer gutxi da iritsi zaiguna, edozein modutan ere ez zaigu atzentzen lehen goi hezkuntzako irakaslea bazegoela 1897. urterako. Historiako liburu bat utzi zigun, *Compendio histórico del antiguo Reino de Navarra para uso de los niños de ambos sexos* izenburukoa, Iruñeko Ezkerrorean 1898. urtean inprimatu zena. Honetan, Oloriz zenaren lana egokitu zuen, haur nafarrek erresuma zaharreko gora beherak ahalik eta zuzenen ikas zitzen. 30 ikasgaletan barrena itaun-ihardespenez erabide zaharra erabili zuen eredu, baita berak deitu «un lenguaje puro, lógico, numeroso y rico por demás en formas y poesía». Ikasgaiak Nafarroako garaipenara arte luzatu zituen, 1512.era arte, eta helburuak aratzen ezin argiago azaldu zituen goiburuan zekarren sarrera laburrean: «A fin de que unos y otros aprendan a recitarla en los albores de su infancia, se aficionen a relatar nuestras glorias e imitar las virtudes y proezas que fueron siempre el distintivo de la raza euskara».

Uxuekoaren garalkidea genuen Pablo Sarasate arrabita jole adituaren arreba etzuen euskaraz izkiriari, San Nikolas karrikako sendi erroak erabat euskaldunak izan baziren ere. Migel Sarasate Juanena aitaren aldetiko aitatzai-amatxiak Larralotz eta Sarasakoak ziren hurrenez hurren, eta Orbaiztako Olan sortua zuen Frantziska Xabiera Nabaskotze Oharrietxena amaren aldetikoak berriz Urdal eta Amalurkoak. Musikalari ospetsuaren bizi ezaletak biltzen hasitkotan, aisa ezagun liteke aitaren betebeharren kariaz Galiza aldera jo behar izan zutela Sarasate troupekoek. Hantxe, A Coruña hain zuzen, Pablaren arreba txikerra jaio zen 1853.eko azaroaren 29an, eta Iruñarren artean Saturnina bataiatu ez izana estonagarri jazo arren, Frantziska ezarri zitoten. Aikoaren lanbideari muzin egirik, gure Pakita idazle sartu zitzaizun, eta zeregin hartan Madrilen eta 1876.ean kaleratu zuen estraineko *Un libro para pollas* izenburuko elaberria. 1878.ean eta izenik gabe ongi baino hobeto ezagutzen zuen anaiari buruzko idazkia argitaratu eman zuen, hau da, *Noticias biográficas del primer periodo de la vida artística de Pablo Sarasate*.

Iruñean ageri zen hau beranduxeko ere, 1921.ean, *La avalancha* izeneko paperan berargitaratu zen aldizka. Honenbestez, eta lehen-dabiziko agerpen hauen ostean, ospe hantuko anaiari eskeinitako olerki liburua agertu zuen Iruñeko Eco de Navarra izeneko molde-tegian 1881.ean, *Horizontes poéticos; libro rítmico*. Honetan Juan Cancio Menaren hitzaurrea badakar, geroantzean ere senarra zukeena. 26 olerki laburren artean, luzaera dextenteagoko Frédéric Souliéren *Bi itsuak* elaberriaren itzulpen dramatikoak ere eskeini zuen. 1882.ean eta Santa Teresaren hirugarren urteurrena ospatzeko aitzakiz ospatu emakumezko idazleen sariketetan, urrezko luma eskuratu zuen *Amor divino* izeneko olerkiarekin.

Nolanahi ere huraxe etzen karrikaratu 1888.era arte, *Fulvia o los primeros cristianos* elaberri historikoa agertu zen urtera arte, izan ere, Zaragozako Mariano Salasen moldiztegiatik elkiriko 117 orrialde-tako aipatu ber idazkian jaso baitzen. Honetan Menaren Frantziska Sarasate bezala sinatu zuen, eta beraz, ordurako Iruñeko legegizon karlista harekin jagoitiki ezkontuta bazegoela pentsa daiteke lasai aski. Cancio Mena Aldundiko idazkaria izan zen 1865-1869 urte bitartean, eta besteen artean, Hego Euskal Herria batzeko 1866.eko proiektuan parte hartu zuen.

1894.ean *Romancero Aragonés* izenburukoa ageri zuen Zaragozan, Faustino Sánchez Gil deputatuaren hitzaurre batez hornituta, eta 1896.ean berriz *Cuentos bascongados* atera zuen Barcelonako Antonio López Robertenean. Diamante sailaren 43 zenbakidunak 13 ipui labur zekarzkituen, eta pentsa daitekeenari aitz, euskarak nahiz euskal gaiak arras agerpen txikerra erakusten du. 1899.ean Poesias religiosas ageri zuen Madrilen, San Francisco Saleskoaren moldiztegi, eta hartan Orriako birginari nahiz San Franzisko Xabierrekoari eginko olerki bana bazituen: «En Roncesvalles los siglos / Escribieron sus hazañas / Vencido fue Carlo Magno / Y con él vencida Francia / Por los guerreros vascos / Dignos de prez y fama / En un elevado valle / Que con la Amescua (sic) se enlaza / Cuna rústica y humilde / De las grandezas navarras». 1910.ean 102 orrialdetako *Pensamientos místicos* argitaratu zuen, Barcelonan ere, Luis Giliren etxean, eta, guk dakigunez, kaleratu azken lana: Charles-Camille Saint-Saëns (1835-1921) musikalarri frantsesak bere Aragoiko jota opus 64 eskeini zion: «A mademoiselle Paquita Sarasate». Iruñean bertan zendu zen 1922.eko maiatzaren lehenean, langilearen egun berean. ■

'Axular', euskaldunak komunikatzeko

Burlatako Axular Kultur Elkartek plazaratu berri du lauhilabetekaria, kasik euskara hutsean


Kalean da 'Axular', Burlatako lauhilabetekariaren lehenengo alea. Axular Kultur Elkartek sortua, herriko hainbat gora-behera eta istorio jasotzen ditu aldizkariak kasik euskara hutsean. Egileek, herriko euskaldunak batu eta batzeaz gain, euskara paperean ere komunikazio tresna izan dadin lortu nahi dute.

Irene Arrizurieta / Burlata

BURLATAKO Axular Kultur Elkartek kasik euskara hutsean argitaratzen den *Axular* aldizkaria plazaratu du. Iruñerrian, eta hain zuzen ere, Burlatan egiten dela aintzat hartuz, erronka gogorra da argitaratzaileentzat. «Lehendabiziko aldiz erdara laburpen modura agertzen den aldizkaria delako Burlatan. Orain arte alderantziz izan da, dena gaztelaniaz eta laburpenak euskaraz joaten ziren, Burlatako BIM aldizkaria lekuko». Aldizkariako erredakzioa Patxi Telletxea, Xabi Zelaia eta Mikel Gulinak osatzen dute eta publizitateaz Mari Jose Gorritxo, Maite Azkona eta Xabi Torregrosa arduratu dira.

Burlata, Iruñerriko beste herriak bezala, izugarri hazi da azken mendean. Erroldari erreparatzen badiogu, 1900. urtean 297 lagun bizi ziren, händik 40 urtera 848, 1960an 3.560. Gaur egun, inmigrazioa eta Nafarroako nekazal guneetatik izandako hustuketaren ondorioz, 15.000tik gora biztanle ditu. Herria hazi hazi da, baina euskaldunak gutxi eta askotan bata besteraren berri jakin gabe bizi dira. 1991ko errolda hartzen bada, 1.064 euskaldun agertzen dira. Beraz, Burlatan ez dago berezko euskaldunik. Bertan daudenak eremu euskaldunetatik etorriak, edo bertako ikastetxeetan edo ingurukoetan euskaldundu direnak dira. AEK, Ermitaberri D ereduko Ikastetxea eta Askatasuna Institutua eta Paz de Ziganda ikastola kontuan hartuta, denetara 1.824 lagun ari dira euskara ikasten. Era berean, D ereduaz % 37 matrikulatu ziren, eta A eta G ereduaren gaitz nontzeko % 63ak. Axularreko kideek diotenez, euskarak gero eta harrera hobia du, eta euskaldunak, emeki-emeki bada ere, gorantz doaz. Datuok guztiok aintzat hartuz, aldizkaria helburu jakin batzuekin sortu da.

«**Burlatako euskaldunak lotu eta bildu**» • Aldizkaria karrikartatu dutenek euskara hutsean kale-erazte «erokeria» dela badiote ere, helburuak eta asmoak argi dituzte. Patxi Telletxea elkarteke partaide eta erredakzio lanetan aritu denak azaldu duenez, bi helburu nagusi ditu. «Alde batetik, Burlatako euskaldunak bildu, konpaktatu, elkartu eta lotu nahi ditugu. 15.000 pertso-



Mª Jose Gorritxo, Patxi Telletxea eta Maite Azkona, *Axular* aldizkariarekin.

LUIS AZANZA

Burlatako kontuen leiho

HOGEITA HAMAR orrialdetan Burlatako hainbat kontu eta pasadizo jaso ditu *Axular* aldizkariaren lehen zenbakiak. Aldizkaria burlatar guztiei zabaldu nahi zaiela aintzat hartuz, aurreneko alean hainbat gai jorratu dituzte.

Axular lauhilabetekariak, beste gai batzuen artean, Burlatako pilota eskolaren lana, herriko historia, Isidro Rikarte euskara teknikariak bertako euskaldunei buruz jasotako eta komentatu-

tako datuak azaltzen ditu. Aurrerantzean, eduki guztiak finkoak izanen ez badira ere, Udaleko eta Burlatako ikastetxeetako berriak leku gehiago izatea nahi lukete.

Ildo horretan, ikastetxe euskaldunak ondoan dituztela aprobetxatuz, harremanak zabaltzeko eta elkarlanean aritzeko asmoa dute.

Horretaz landa, badu besterik ere lehenbiziko aleak. Burlatako euskaldunzahar batek ematen dio akabera aldizkariari.

Hasierako hitza esatea Abaurregainean jaio baina Burlatan bizi den Sekundino Iriarteri egokitu zaio, eta aurrerantzean, alero herriko euskaldunzaharren bat biltzen joanen dira. Bestetik, iritzi artikuluek ere izanen dute tokia.

Lehenengo alea 300.000-350.000 pezeta kosta da (14.000 libera inguru). Diru gehiena (200.000 pezeta) Burlatako merkatariek paratutako publizitatearen bidez lortu dute, eta gai-

nontzekoa Burlatako Udalak eta Nafarroako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak emandako diruarekin osatuko dute. Axularkideek aitortu dutenez, aldizkaria ateratzea lan handia izan da eta oraingoz behintzat herrian geldituko dira. Hurrengo alea ekainean plazaratuko da eta bestea udazkenean.

Kontent dira izan duen harreragatik, jendeari gustatu zaiolako. Hala ere, zer hobetua badutela

diote: testu anitz eta argazki eta grafiko gutxi omen du lehenbiziko honen, eta beraz hurrengoak samurragoa egin behar omen dute.

Hala ere, etorkizunean Iruñerriera zabaltzeko aukera ez dute baztertu. «Edukiak zabaldu eta Iruñerrian banatu ez dugu eginen momentuz. Burlatan geldituko gara, nahiz eta etorkizunean agian Errotxapea, Txantrea edo Atarrabiara zabaltzeko eta banatzeko aukera izan».

na gaude Burlatan baina hor badira 1.000 euskaldunak direnak, eta hemen ikasten dutenak kontuan hartuta 2.000 baino gehiago. Baina zer gertatzen da herrian?, galdetu diote euren buruari Axularreko kideek. «Euskaldun guztiei pasatzen zaiguna. Erdaldunen artean guztiz galdutak gaudela. Horregatik, interesgarria da aldizkariaren bitartez hemengo berriak eta kontuak elkartzea. Euskal komunitate bat dago erdal komunitatearen azpian, islatzen ez dena, lur azalera ateratzen ez dena, eta guk uste dugu aldizkariaren bidez lotzen

ahal ditugula». Bigarrenik, berriaz, jarduera honetan euskarari benetako balio komunikatiboa eman nahi diote. «Euskara ez da balio sinbolikoa eta apaingarria duena, euskara benetan balio duen tresna da. Euskaraz idazten dugu aldizkaria, gaztelaniazko laburpentoak hortxe daude baina bigarren maila batean. Bazen garaia euskarari bere garrantzia emateko».

Orain hamabi urte sortutako kultur elkartearen gerizpean • Ez da oraintzekoa Axular Kultur Elkartea, sortu zenetik hamabi

urte joan baitira. Hastapenetako ildoari jarraituz, gaur egun ere elkartearen asmoa bera da, Patxi Telletxeak dioenez: «Burlatan euskara eta euskal kultura zabaltzea eta uztartzea». Hamabi urte izanen dira hasi ginela Burlatan elkarte euskaltzale eta euskalduna sortu nahian. Euskal kultura bultzatu nahi genuen eta hori elkarte baten barnean errazago egiten denez bilgune bat behar zen. Horrelaxe sortu zen Axular. Burlatan dauden euskaltzale guztien topaleku izan nahi duen elkarte irekia da Axular, eta lortzen ari dela uste dute.

Gehiago nahi lituzketen arren, 220 bazkide ditu, horietatik % 60 euskaldunak.

Axular aldizkariaren sortzailea elkarteke kultura batzordea izan da. Aldizkariak lau hilabetero ateratu nahi du eta 1.500 ale karrikartatu dira aldioro. Bazkideei ez ezik, Burlatan dauden euskaldunen zentsua aprobetxatuz horiei ere banatuko zaie. Herriko euskara guneetan ere utziko da aldizkaria, hala nola AEK-ko euskaltegian, Ermitaberri Ikastetxean, Askatasuna Institutoan eta Paz de Ziganda Ikastolan. ✕

◆ Andres Perez ◆ Atleta

«Igandean argituko ditut zalantzak»

Andres Perez atleta iruindarrak bihar bertan hartuko du Londresako bidea, igandean bertako maratokia parte hartuko baitu. Bi ordu eta hamar minututik jaitea da bere helburua. Berriki, martxoaren 23an, Munduko Kros Txapelketan parte hartu zuen Perezek Turinen, baina gauzak ez zitzaizkion nahi bezala atera.

Eduardo Elizondo / Iruña

TURINEN 82.ena izan zen iruindarra. Lorpen ona, ibilbidea nolakoa zen kontuan hartuz, krosa baino, maratokia prestatzen eman baititu azken hilabeteak Andres Perezek. Londresen saiatuko da bere asmo guztiak betetzen Beste Iruña taldeko korrikalaria. Joan aurretik, gurekin mintzatu da.

■ **Nola baloratzen duzu zure partehartzea Tuingo Munduko Kros Txapelketan?**

Esperientzia hagitz positiboa izan da, jende asko ezagutu eta Munduko Txapelketako giroa ezagutu dudalako. Iritzi ezberdinak ezagutzeko aukera eman dit ere, besteek egiten dutenari eta nik neuk egiten dudanari buruz. Urtero parte hartzen dutenekin harremanetan jarri naiz, gainera, eta hori ona da, asko ikasten dudalako. Mundiala nola korritzen den ikasi dut, nere lehenengo aldi honetan esperientzia eza ordaindu baitut. Bestalde, ez nintzen hagitz ongi prestatu. Ni maratokia prestatzen ari naiz eta aldaketa nahiko handia da.

■ **Txapelketan ez zinen nahi bezala ibili. Bukatu ondoren erran zenuenez, gainera, ez duzu argi ibilbidera egokitu ez zinela izan zen, edo indarrrik gabe gelditu zinela.**

Argi dago zalantza guztiak igandean argituko ditudala. Londresen korrituko dut eta orduan jakinen dut ongi nengoen edo ez. Badakit denbora luzea daradama entrenatzen, gogor egin dudala lan, eta agian, justu sa-



Beste Iruña taldeko Andres Perezek Londreseko maratokia korrituko du igandean.

LUIS AZANZA

mar nago orain. Baina indar kontua baino, egia da txapelketako ibilbidea, lurrazala, entrenatzeko erabiltzen dutenaren oso ezberdina zela. Batez ere errepidean ibiltzen naiz, leku lauan, eta Turinen aldapak, lurrazal biguna aurkitu nituen, eta asko nabaritu nuen aldaketa. Baina egia erran, uste dut orain dela hilabete edo hilabete eta erdi orain baino apur bat hobeto nengoela forma aldetik. Baina maratokia korritu arte ez dut ziur jakinen.

■ **Txapelketako partehartzeak eraginik izan al du zure kontzentrazioan, maratokiari begira?**

Lehenengo egunean, hain zuzen, entrenatzaileari galdera hori egin nion, Munduko Txapelketara joan izan ez banintz ea beste modu batean egingen niokeen aurre maratokiari. Orain, adibidez, maratokiara joanen naiz pentsatuz lehengo egunean ez nintzela ongi

egon, zalantza gelditzen zaizu, baina espero dut lasterketan horretaz guztiaz ahaztea. Agian Munduko Txapelketari uko egin behar nion, baina halakoak bizitzan behin baino gertatzen ez direnez...

■ **Maratokiari dagokionez, nola prestatu duzu?**

Batez ere errepidean prestatu dut, 180 kilometro inguru egin dut astean. Lurrazal lauak bilatu ditut, maratokiaren ibilbideak halakoak baitira. Erritmo mantsoagoak landu ditut, 42 kilometro korritzeko erritmoa mantsoagoa baita, krosean baino. Dena da ezberdina. Maratokiaren erresistentzia da garrantzitsua, eta hori landu dut gehien.

■ **Zer lortu nahi duzu Londresen, zein da zure asmoa?**

Marka oso ona egiteko ilusioarekin aterako naiz baina ez dakit zer gertatuko den. Bi ordu eta hamar minutu inguruko denbora lortzea da nere asmoa, horrek, kontuan hartzen zaituztela eta hoberenen artean zaudela erran nahi baitu.

■ **Urte hasieran Seuleko Maratokia egiteko asmoa zenuen, baina**

Munduko Kros Txapelketa zela eta, planak aldatu behar izan dituzu. Zergatik aukeratu duzu horren ordez Londresekoa?

Data aldetik, Parisekoa hobe zen nerretzat baina gogorragoa da. Londresekoa ibilbideagatik aukeratu dut. Londresen, gainera, marka onak egiten dituzte korrikalariak, eta kalitate handiko jendeak parte hartzen du.

■ **Iazko Tuingo zure lehen maratokia, bi ordu eta hamalau minutu inguruko denbora lortu zenuen. Bi ordu eta hamar minutuko markatik hurbil egon zinen, baina azkeneko kilometroetan behera egin zenuen.**

Tuingo esperientzia nerretzat oso positiboa izan zen, hain zuzen, nere akatsak non ziren jakiteko, eta horiek landu ahal izateko. Iazko maratokiaren ez nintzen hagitz ongi prestatua ailegatu, baina egin nuen markarekin kontent nago. Aurten hori gainditzan saiatuko naiz.

■ **Alpatu izan duzunez, entrenamenduetako erritmo biziaren ondorioz nekatuta zaudete. Urte hasieran, aurten maratokiaren marka ona lortu ezean atletis-**

s o s l a i a

Orain dela zortzi urte futbola utzi eta atletismoan bere indarrak neurtzea erabaki zuen Andres Perez Sanduzelai auzoko iruindarrak. Osasunako bigarren taldetik eta Bigarren B mailatik joan, eta kros lasterketetan parte hartzen hasi zen.

Urte hauetan, gainera, lorpen garrantzitsuak eskuratu ditu. Lehenengo urtean, Jada, Espainiako txapelduna izan zen bere adinean, eta Nafarroan, gauza guztiak lortu dituela erran daiteke. Euskadiko Kros Txapelketan ere, bitan lortu du garaipena. Aurten, ez du parte hartu.

Hemendik aurrera zer egingen duen, igandeko maratokiaren ondoren erabakiko duela erran digu Andres Perezek. «Marka ona lortzen bada, urte bukaeran beste maratoki batean parte hartzeko prestatzen hasiko naiz. Bestela, distantzia laburragoak prestatuko ditut».

moa uzteko prest zinela erran zenuen ere. Berdin pentsatzen duzu orain?

Beno, gauzak ongi ateratzen ez direnean, fisikoki baino, psikologikoki nekatzen zara. Amore ematen duzu, laguntzarik ez duzula pentsatzen duzu, lanean ari zara eta gogorra da. Baina aurten ez da hori nere egoera, neguko denboraldian hagitz ongi ibili naiz, maratoki erdian marka lortu nuen, lasterketa on asko egin dut, beraz, psikologikoki ongi, eta fisikoki hagitz nekatua nago. Inoiz ez naiz azken zazpi hilabetetan bezain gogor entrenatu, eta neguko denboraldia amaitzeko irrikitan nago. Maratokiaren bukatzean, hobe eguneko atsenedaldia hartuko dut gutxienez, gero uda gogoz prestatu ahal izateko.

■ **Beraz, ez duzu uzteko asmorik.**

Oraingoz ez. Munduko Txapelketan ere parte hartu dut aurten eta horri esker, datorren urtean lasterketa garrantzitsuagoetan parte hartzeko aukera izanen dudala uste dut. Apur bat gehiago igotzeko lagunduko dit agian. Baina nerretzat, funtsezkoena, maratokia da.

BEKARIO!

Zaldi Eroa

